

## Herria-Suro-Herria

### Arano

*Ibilbide erraz honek Aranoko bistaz eta herriko edertasunez gozatzeko aukera emango digu. Herriko bi auzo elkartzen ditu eta familia zein lagun artean egiteko oso aproposa da.*



Llegando al barrio de Suro.

#### 1.1 ARANOKO HERRIGUNEA (Arano)

Herriko aparkalekuan kotxea utzi eta ikuspegi ederrak hartuko ditugu ibilbideari ekin aurretik. Ondoren, Suroko bidezidorretako baterantz egingo dugu elizaren goiko aldeko hormigoizko bidea hartuta. Berehala, 160 graduko bihurgune batera iristean, hormigoia utzi eta bide xendari segiko diogu "Luxanbi" eta "Sorotxon" barna Añarbeko urtegiari eta Urdaburu aldeko baso ederrei begira eta pagope paregabeaz gozatuz. Artzuloko iturrian ur trago eder bat egin eta Suron gara berehala auzoaren patxada eta bista ezin hobeez gozatzeko moduan.



Suroko bidea.

#### 1.2 SURO (Arano)

Lehendabiziko etxeetara iristean, iturri baten ondoan eskuinera hartuko dugu bi bideetatik eskuinenekoa hartuz. Aldapa handi xamarra

igo beharko dugu (250-300 m ingurukoa), Suroko ur hornidurarako egindako etxolara iritsi arte. Handik, "Juan Donosti" ermitara igoko gara pago zahar eta gaztez babestutako bidean.

#### 1.3 JUAN DONOSTI ERMITA (Arano)

Behin ermitako txabalean gaudelarik, ezkerretara esaroko pasabidean pasa eta "Juan Donostiko gaina" deitzen zaion behatokira igo gintezke Kantauri itsaso eta nafar Pirinio mendiak ikus ditzakegun leku zoragarriaraino. Han geldialdi bat egin eta berriro bizkarrez bizkar "Orauneko" zabalera iritsiko gara.

#### 1.4 ORAUNEKO GAINA (Arano)

Oraunen herrira datorren pista hartuko dugu eskuinerantz eta "San Rokeko" ermitan pasako gara ibilbidea hasi dugun leku berdineraino iritsiko garelarik.

ERRAZA

- Desnibela: 60m
- Iraupena: 70 min
- Distantzia laburreko ibilbidea (kolore txuriz markatua)

## Arano-Suro-Arano

### Arano

*Este recorrido nos da la opción de conocer y disfrutar de las maravillosas vistas de Arano. El camino une dos barrios de Arano. Es un recorrido fácil, idóneo para hacerlo en familia o con los amigos.*



Llegando al barrio de Suro.

#### 1.1 CENTRO DE ARANO (Arano)

Dejaremos el coche en el parking de la plaza del pueblo de Arano, desde donde se pueden contemplar unas magníficas vistas hacia Donostia. A continuación, partiremos hacia el barrio de Suro por la pista de hormigón que asciende desde la parte trasera de la iglesia. En seguida llegaremos a una curva muy cerrada desde donde comienza el camino de tierra. Tomaremos este camino a través de Luxanbi y Sorotxon, contemplando las vistas hacia el pantano de Añarbe y a Urdaburu. En la fuente de Artzulo podemos detenernos a beber un trago de agua fresca. Un poco más adelante llegaremos al barrio de Suro



Camino a Suro.

#### 1.2 SURO (Arano)

Al llegar a las primeras casas, a la altura de una fuente, tomaremos el camino situado más

a la derecha. Deberemos ascender una cuesta (250-300 metros) hasta llegar a una caseta de suministro de aguas. Desde allí caminaremos hasta la ermita de Juan Donosti a través de un bonito hayedo.

#### 1.3 ERMITA DE JUAN DONOSTI (Arano)

Al llegar a la ermita, merece la pena detenerse un rato a contemplar las vistas desde este mirador conocido como "El alto de Juan Donosti". Desde aquí se puede llegar a ver la bahía de la Concha de San Sebastián y los Pirineos navarros.

#### 1.4 ALTO DE ORAUNE(Arano)

Tras la parada, retomaremos el camino hacia el alto de Oraume, atravesando varias crestas pequeñas. En Oraume tomaremos la pista que conduce al pueblo hacia la derecha. Pasaremos por delante de la ermita de San Roque antes de llegar al centro de Arano.

FÁCIL



- Desnivel: 60m
- Duración: 70 min
- Recorrido de corta distancia (marcado con color blanco)